

Arratia "Bidean Gagoz"

# Sormena neurririk gabeko kontsumoaren aurrean!
# ¡Creatividad frente al consumo desenfrenado!

## Ohar praktikoak

Ipar Amerikako eta mendebaldeko Europako kontsumo eredua mundu osora zabalduko balitz, hiru planeta beharko genituzke eskaera horri aurre egiteko. Gu ekonomia eredu horren parte gara eta Gabonetan bereziki gailurra jo-tzen duen gizarte kontsumista batetan bizi gara. 2005ean Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Konfederazioak emandako datuen arabera, familia bakoitzak gabonetan 900 euro gehiago erabiltzea aurreikusten zen. Hurrengo urteetan 2008a arte, kopuru horrek gora egingo zuen zalantzarik gabe. Neurririk gabeko kontsumismoari aurre egin ahal izateko, eroskletak gutxitu eta gauzak berrerabili eta birziklatzeko eskaera egiten dizuegu.

## Consejos prácticos

En el caso de que el modelo de consumo de Norteamérica y Europa occidental se extendiera en el resto del mundo, serían necesarios tres planetas para hacer frente a esta demanda. Nosotros formamos parte de ese modelo económico y vivimos en una sociedad consumista que alcanza su cúspide entregándose al consumo exagerado especialmente en Navidad. Según los datos referidos a 2005 la Confederación de Consumidores y Usuarios preveía en diciembre un gasto adicional de 900 euros a cada familia. En los años sucesivos hasta el 2008 en que nos encontramos seguramente esa cifra habrá aumentado sin cesar. Por todo ello, os instamos a hacer uso de las tres "R"s (Reducir, Reutilizar y Reciclar) y apelamos a la creatividad para hacer frente al consumo desenfrenado.


Arteako Udala



Arantzazuko Udala



Bediako Udala



Dimako Udala



Igorreko Udala



Zeanuriko Udala



Areatzako Udala



Lemoako Udala


Arratia


Gurekin harremanetan jartzeko:

Para ponerte en contacto con nosotros:

94 631 17 17

@ udalsarea21.arratia@bizkaia.org


## BIZI-POZA ETA BIZI-INDARRA GASTATU BARRA-BARRA

Energiaren gehiegizko erabilera Gabonetan ohikoa da, batetik, zuhaitza, Belena eta etxea bera apaintzeko jartzen diren argiekin, eta bestetik etxeko elektrogailuen erabilerarekin.

- Aurreneko kasuan, kontsumo baxuko bonbilak erabiltzea eta piztuera orduak mugatzea gomendatzen dugu; hau da, argiak une jakin batzuetan soilik piztea eta ez gau eta egun osoan. Era honetan, argiztapena martxan jartzen dituzun une horiek bereziak bihurtuko dituzu.
- Bigarrengoan, berogailua jaitsi eta jertsea jantzi, elektrogailuak sarera konektatu eta pilak ez erabili, eta behar ez dituzunean erabat itzali. Bereziki data hauetako bazkari eta afari ugariak kontutan hartuta, plater garbigailua ondo beteta martxan jarri eta temperatura baxuko programak erabili.

Gainera:

- Betiko moduan, garraiobide publikoak erabiltzera animatzen zaituztegu.
- Tokiko produktuak bertako dendatan erostera gonbidatzen zaituztegu.

Mugarik gabe gastatzen dugun energia bakarra bizi-poz eta bizi-indar zaparrada izan dadila!

1








## DERROCHA ALEGRÍA Y ENERGÍA VITAL

El despilfarro de energía suele ser bastante común en navidad, por un lado, de la mano de los adornos propios de las fiestas tales como las luces del árbol, las del belén y las que adornan la casa y por otro en la utilización de los aparatos eléctricos o de gas del hogar.

- En el primer caso aconsejamos utilizar bombillas de bajo consumo y limitar las horas de encendido, es decir encender las luces en momentos puntuales y no durante todo el día y la toda la noche. De esta manera, convertirás en momentos especiales aquellos en los que la iluminación se ponga en funcionamiento.
- En el segundo: Bajar la calefacción y ponerse un jersey, conectar los aparatos a la red en vez de utilizar pilas, apagar los aparatos totalmente cuando no los necesitemos y especialmente en estas fechas en las que predominan los banquetes utilizar el lavavajillas lleno y con programas de bajas temperaturas.

Además:

- No nos cansamos de animaros a utilizar el trasporte público o bien conducir una bici o caminar.
- Os instamos a comprar productos locales en establecimientos cercanos.

!Que el único derroche de energía del que seamos responsables consista en un torrente de alegría y energía vital!

## EDUKIA EROSI ETA EZ BERE ONTZIA

Ontziak egiteko natura baliabideak xahutzen dira, ura eta atmosfera kutsatzen da eta energia ugari kontsumitzen. Zabor bihurtzen direnean ere ingurumena kaltetzen dute bai bere birziklapen prozesuan eta askoz gehiago zabortegi edota errausketa instalazio batean. Etxeko hondakinen %40 hondakin organikoak dira eta gainontzekoaren %80 ontziak, gabonetan portzentaia hori ikaragarri igotzen denez, oso garrantzitsua da:

- Itzultzeko botilak aukeratzea.
- Ehunezko poltsak edota betiko erosketarako karritoa eramatea.
- Oparietako papera gorde eta berrerabiltzea.
- Enbalatuegiak dauden produktuak ez erostea.
- "Erabili eta bota"ko produktuak ez erostea, esaterako, beirazko edota plastikozko ontziak erabili platikozko eta aluminiozko paperaren ordez.

2





## COMPRA EL CONTENIDO NO EL ENVASE

Para fabricar envases se utilizan recursos naturales, se contamina agua y atmósfera y se consume mucha energía. Cuando se convierten en residuos también perjudican al medio ambiente a la hora de su reciclaje y mucho más en vertederos o incineradoras.

Si tenemos en cuenta que un 40% de los residuos domésticos son orgánicos y del resto nada menos que un 80% son envases y en navidad este porcentaje se dispara, nos podemos hacer una idea de lo importante que es:

- Elegir envases retornables.
- Llevar bolsas de tela a la compra o el tradicional carrito.
- Guardar y reutilizar el papel de regalo.
- No comprar productos sobre embalados.
- No comprar productos de usar y tirar, por ejemplo utiliza tarros de cristal o fiambreras reutilizables para guardar comida en vez de usar papel de plástico o aluminio

## ZURE IRUDIMENA ASKE UTZI

Bizirik dagoen natura ez erabili etxea apaintzeko, saiatu benetako arbola erabili beharrean iraunkorra den gezurrezko bat jartzen. Benetakoa erabili behar baduzu, berriz, erosi aurretik osasuntsua dela ziurtatu eta gero zaindu ondo festak bukatutakoan ere bizirik egon dadin. Goroldio eta gorostiak debekatuta daude, desagertzeko zorian ditugu-eta. Horregatik, sormena landu eta irudimena erabili etxeko apaingarriak egiteko!

3




## DA RIENDA SUELTA A TU IMAGINACIÓN

No utilices naturaleza viva como adorno de usar y tirar, sustituye un abeto real por uno artificial que puede durar muchos años. Si vas a usar un abeto natural, asegúrate de que esta sano y cuídalo para mantenerlo vivo después de las fiestas. No eches mano de musgo o acebos porque están en peligro de extinción. Se creativo y utiliza la imaginación para fabricar adornos navideños.

## ZURE DESIOAK ZEUK SORTU

Produktuak erosarazteko publizitateak erabiltzen dituen iragarri eta mezuak ez sinetsi.

- Opariak erosteko orduan, kontuan izan natura edota gizakiak kaltetu ote diren produktu horiek egiterakoan. Artisauak diren opariak erosi, bidezko merkataritzako dendetan sartu eta elkartrukeetan parte hartu.
- Saiatu jostailuak seguruak eta hezigarriak izan daitezen eta alde batera utzi jostailu beliko eta sexistak.

Produktua erosi eta ez bere iragarkia.

4




## CONSTRUYE TUS PROPIOS DESEOS

Intenta mantenerte al margen del bombardeo de anuncios y de los mensajes que nos impulsan a comprar los productos que publicitan.

- A la hora de comprar regalos ten en cuenta si han perjudicado a la naturaleza o a seres humanos cuando han sido producidos. Compra regalos artesanales, date una vuelta por las tiendas de comercio justo y participa en cooperativas de trueque.
- Procura que los juguetes sean seguros instructivos y pedagógicos y aparta los juguetes bélicos y sexistas.

Compra el producto no su publicidad.

## BERRERABILI ETA BIRZIKLATU GABONAK

Festak bukatu ahala apaingarriak gorde eta zaborrak botatzeko ordua heltzen da.

- Gorde ahal duzun guztia, zaborrontzira botatzen diren gauza asko konpondu eta berrerabili daitezke-eta.
- Gogoratu gauza bakoitzak bere edukiontzi mota duela birzikla daitekeen guztia birzikla dadin.

5



## REUTILIZA Y RECICLA LA NAVIDAD

Una vez pasadas las fiestas llega la hora de guardar adornos y tirar desperdicios.

- Guarda todo lo que puedas, muchas cosas que se tiran a la basura se pueden arreglar y reutilizar.
- Recuerda que cada objeto tiene un contenedor adecuado para que se pueda reciclar todo lo reciclable.